

PRENTSA OHARRA: 2026.09.10

Euskal Herriko dantza konpainien nazioartekotzean mugarri Le Temps d'Aimer la danse jaialdia

- Etxepare Euskal Institutua eta Frantziako Koreografia Zentro Nazionala - Malandain Ballet Biarritzen arteko aliantza estrategikoak kooperazio-esparru bateratu eta egonkorra bultzatzen du euskal artisten ekoizpena, hedapena eta nazioartekotzea errazteko
- Aurten, hamazazpi euskal konpainia ariko dira Biarritzeko Le Temps d'Aimer la danse jaialdian, bi erakundeen arteko lankidetzari esker.
- Irailaren 12an Tabakaleran egingo den topaketak Euskal Herriko sortzaileak, dantza-konpainiak eta nazioarteko programatzaileak hartuko ditu.

Donostia, 2026eko irailaren 10a -. Gaurtik irailaren 21era, dantzak Euskal Herriko geografian barrena egingo du Le Temps d'Aimer la danse jaialdiaren eskutik. Biarritz izango da jaialdiaren erdigunea, baina programazioa Ipar Euskal Herriko kostalde eta barnealdera hedatuko da: Baiona, Angelu, Bokale, Donapaleu, Donibane Garazi, Maule, Luhuso, Bastida, Hazparne, Itsasu, Urcuit eta Urt izango dira, besteak beste, jaialdiaren agertoki. Gainera, nazioarteko dantza-jaialdia Hego Euskal Herrira ere iritsiko da, Erreteriarako Lekuona Fabrikari eta Donostiako Tabakaleran egingo diren hitzorduekin. Antzokiak, plazak, frontoiak eta bestelako espazioak dantza-agertoki bihurtuko dira hamabi egunez, Le temps d'Aimer la danse jaialdiaren mugaz gaindiko izaera agerian utziz.

Etxepare Euskal Institutuaren eta Frantziako Koreografia Zentro Nazionala - Malandain Ballet Biarritzen arteko lankidetzari esker, hamazazpi euskal konpainiak euren lanak aurkeztuko dituzte aurtengo Le temps d'Aimer la dansen. Elkarlanaren bidez, euskal dantzaren sorkuntza eta zabalkundea sustatu nahi dira, eta konpainiei

Frankofoniako eta nazioarteko dantza-zirkuituekin harremanak sendotzeko aukerak zabaldu.

Euskal Herriko dantza konpainien erakusleho

Euskal Herriko bi aldeetako konpainia eta sortzaileen presentzia zabala izango du jaialdiak: **Mizel Théret, Collectif Ibawa, CCN Malandain Ballet Biarritz, Oihan Indart, Lucia Lacarra Ballet, Led Silhouette, Bilaka, Elirale, Lasala, Haatik & Jone San Martin, Idoia Rodriguez** eta **Altraste Danza**.. Horrez gain, Martin Harriague 2027tik aurrera Malandain Balleta zuzenduko duen koreografoak Ballet de l'Opéra Grand Avignonentzat sortu duen *Prométhée* eta Iratxe Ansak **Ballet de l'Opéra National de Bordeaux-rentzat** sortutako *Joy* ere izango dira programazioan.

Dantza klasiko eta garaikidearen nazioarteko topagune izanik, Le temps d'Aimer la danse sektoreko profesional eta programatzaile ugari biltzen ditu. Horrek euskal konpainia eta sortzaileei euren lana nazioarteko eragileen aurrean aurkezteko eta harreman berriak lantzeko aukera eskaintzen die.

Basque Dance, euskal sorkuntza programatzaile frankofonoen aurrean

Irailaren 12an, **Basque Dance** showcase profesionala egingo da Tabakalerako Dantza Espazioan, Etxepare Euskal Institutuak, Malandain Ballet Biarritzek eta ADDEk (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte) elkarlanean antolatuta. Saioa bereziki frankofoniako programatzaileei zuzenduta egongo da, eta euskal dantza garaikideko hainbat proposamen zuzenean ezagutzeko aukera eskainiko die.

Programan hiru pieza aurkeztuko dira: **Compagnie Emilie Camachoren** *Retour à Itak*, **Proyecto Larruaren** *La senior de Larrua* eta **Osa + Mujikaren** *Tupper*. Showcasearen ondoren, profesionalentzako lunch-a egingo da, konpainien eta programatzaileen arteko harremanak sustatzeko eta etorkizuneko programazio, bira eta lankidetzak aukerak errazteko.

Epe luzerako lankidetzak: Etxepare eta Malandain

Etxepare Euskal Institutuaren eta Malandain Ballet Biarritzen arteko aliantzak epe luzeko lankidetzak-esparru egonkorra du oinarri, euskal artistei sorkuntzatik

zabalkundera eta nazioartekotzera arteko ibilbidean laguntzeko. Ipar Euskal Herrian Frantziako Koreografia Zentro Nazional bat izateak euskal konpainiak Frantzia osoko zabalkunde-sareekin lotzeko aukera eskaintzen du, eta Biarritz euskal dantza Frankofoniara proiektatzeko gune estrategiko bihurtzen du.

Lankidetza **‘Ça colle au basque’** egitasmoaren barruan kokatzen da, Etxepare Euskal Institutuak euskal kulturak Frankofonian duen presentzia indartzeko bultzatutako ildoaren baitan. Horren harira, Etxepare Euskal Institutuak eta Frantziako Koreografia Zentro Nazionala - Malandain Ballet Biarritzek lankidetza-akordioa sinatu zuten iaz.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua euskara eta euskal kulturaren nazioarteko proiektazioaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakundea da. 2010ean sortu zenetik, euskal sorkuntza garaikideari ikusgarritasuna emateko, atzerrian euskararen irakaskuntza eta erabilera sustatzeko eta nazioarteko kultur lankidetza sustatzeko lanean dihardu.

Esparru akademikoan burututako jardunari esker, mundu osoko 33 unibertsitatetan irakasten dira euskara eta euskal kultura, eta euskal ikasketen 12 katedra daude ospe handiko zentroetan.

Info+

Komunikazioa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus